

466/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 21EKOA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIARENA, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIAREN MAIATZAREN 29KO 398/2024 EBAZPENA ZUZENTZEN DUENA. 398/2024 EBAZPENAREN BIDEZ, OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO GOI MAILAKO ARLO KORPORATIBOKO TEKNIKARI ARDURADUNAREN LANPOSTU BI BETETZEKO DEIALDIA EGIN ZEN, BEHIN BETIKO BARNE MUGIKORTASUNAREN, ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ.

Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpenaren bidez, Goi Mailako Arlo Korporatiboko teknikari arduradunaren bi lanpostu behin betiko barne-mugikortasunaren bidez betetzeko deialdia egin zen.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikulua ezartzen duenez, «Administrazio publikoek, beren kabuz edo interesdunek eskaturik, edozein unetan zuzendu ditzakete egintzetako errakuntza materialak, egitezkoak edo aritmetikoak».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, argitaratzeko bidalitako testuan dauden hutsak edo omisioak maila bereko xedapen baten bitartez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira, eta horiek zuzentzearen ondorioz, dokumentuaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Behin betiko barne-mugikortasunean betetzeko deitutako lanpostuetako baten deskribapenean akats bat antzeman denez, zuzendu egingo da.

Horregatik guztiagatik, eta langileen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa. – Ebazpena ematea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideetako zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpena zuzentzeko. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Arlo Korporatiboko Goi Mailako Teknikari Arduradunaren lanpostu bi betetzeko deialdia egiten da, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez.

Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpenak honako lanpostu-zerrenda honetarako deia egin zuen:

HELBIDEA	ZUZENDARIORETZA	ZERBITZUA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/DER RIGORTASUN-DATA	DESTINO KOP.
Giza Baliabideen Zuzendaritza	Hautaketa eta Hornikuntzako Zuzendariordetza	Kontratazioa	3. HE 22.02.2024	1
Giza Baliabideen Zuzendaritza	Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordetza	Ebaluazioa eta garapena	3. HE derrigortasun-datarik gabe	1

Akats bat antzeman da Ebaluazio eta Garapen Zerbitzuko lanpostuaren derrigorrezkotasun-datan: «derrigortasun-datarik gabe» jartzen duen lekuan «2024-05-01» jarri beharko luke.

Beraz, destinoen deskribapena honela zuzendu da:



HELBIDEA	ZUZENDARIORETZA	ZERBITZUA	HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA/DER RIGORTASUN-DATA	DESTINO KOP.
Giza Baliabideen Zuzendaritza	Hautaketa eta Hornikuntzako Zuzendariordetza	Kontratazioa	3. HE 22.02.2024	1
Giza Baliabideen Zuzendaritza	Garapen eta Prestakuntzako Zuzendariordetza	Ebaluazioa eta garapena	3. HE 2024-05-01	1

Bigarrena.- Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lekualdatze-lehiaketaren web-orrian argitaratzeko agintzea.

Hirugarrena. – Epea 15 egun baliodenez luzatuko da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena. – Gainerako jarduketetan, Giza Baliabideen zuzendariaren maiatzaren 29ko 398/2024 Ebazpenean ezarritakoa mantentzea. Ebazpen horren bidez, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusian Arlo Korporatiboko Goi Mailako Teknikari Arduradunaren lanpostu bi betetzeko deialdia egiten da, behin betiko barne-mugikortasunaren, aldi baterako barne-sustapenaren eta zerbitzu-eginkizunen bidez.

Bosgarrena. – Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarri. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.


 Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 21a

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS

 Giza Baliabideen zuzendaria,
 LUISA LARRAURI EREÑOZAGA